Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko apirilaren 22a, astelehena

77

Lunes, a 22 de abril de 2024



## ASTIGARRAGAKO UDALA

*Dirulaguntza deialdia: Eskolako materiala erosteko familientzako laguntzak.*

Astigarragako udaleko Tokiko Gobernu batzarrak –788/2023 Dekretuaren bidez alkateak eskuordetuta–, 2024ko martxoaren 26an egindako ohiko bilkuran hezkuntza arloko hainbat laguntzen oinarriak onartu eta deialdi publikoa egitea ebatzi du.

*1. oinarria. Xedea eta aplikazio eremua.*

Oinarri hauen xedea da Derrigorrezko Hezkuntzako edo Haur Hezkuntzako maila batean matrikulatutako ikasleentzat eskola materiala erosteko familiei dirulaguntzak ematea.

Horretarako, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta udal-aurrekontuko 1 0600.480.01.320.00 2024 zenbakiko kontu saillean 5.000 euro ditu Udalak.

Jasotako eskaeren kopurua dela eta beharrezkotzat jotzen bada, zenbateko hori handitu ahal izango da, aurrekontu-kredituak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatu ondoren, eta ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea.

*2. oinarria. Onuradunak.*

Dirulaguntza lerro honetarako onuraduntzat honako hauek hartuko dira:

Laguntza pertsona fisikoek eska dezakete, zehazki, 2024-25 ikasturtean EAEko Hezkuntzako Administrazioak baimendutako edozein ikastetxetan matrikulatutako Astigarragako haurren gurasoak edo legezko ordezkariak, ondoko baldintzen arabera:

— Laguntza berarentzat eskatzen den adingabeak eta laguntza hori eskatzen duenak Astigarragako helbide berean eskaeraren data baino lehen erroldatuta agertu beharko dute.

— Dirulaguntzaren eskatzaileak dirulaguntza berarentzat eskatzen den adingabearen aita, ama edo legezko ordezkaria (tutorea) izan beharko du.

— Dirulaguntza berarentzat eskatzen den adingabeak derrigorrezko irakaskuntzako mailetan matrikulatua egon beharko du deialdiaren urteari dagokion ikasturtean, EAEko Hezkuntzako Administrazioak baimendutako edozein ikastetxetan.

— Familiaren urteko errentak ez du gainditu beharko deialdian tarte bakoitzerako ezarritako zenbatekoa (ikus 6. oinarria).

— Esakeraren unean, eskatzaileak dendetako fakturak eduki beharko ditu, edo haiek ordezten dituzten dokumentuak (faktura sinplifikatua), laguntzaren kopuru beraren edo gehiagoren balioko (BEZa barne) eskola materiala erosi duela justifikatuko dutenak.

— Eskatzailea, adierazitako kontu korronteko titularra eta aurkeztutako fakturaren bezeroa pertsona bera izatea (faktura sinplifikatuak bezeroa identifikatzen den establezimenduko albaranarekin aurkeztu beharko dira).

— Familia-unitateko kideek Astigarragako Udalarekin zorrik ez izatea.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

*Convocatoria de ayudas: Ayudas a las familias para la compra de material escolar.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Astigarraga –por delegación del alcalde, realizada por Decreto 788/2023– en la sesión ordinaria celebrada el 26 de marzo de 2024, ha aprobado la convocatoria pública de diversas subvenciones del área de Educación.

*Base 1.ª Objeto y ámbito de aplicación.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la convocatoria de subvenciones a las familias para la adquisición de material escolar al alumnado matriculado en cualquier curso de Educación Obligatoria o Educación Infantil.

Para ello, el Ayuntamiento cuenta con 5.000 euros en el Plan Estratégico de Subvenciones y en la partida 1 0600.480.01.320.00 2024 del presupuesto municipal.

En el caso de que el volumen de solicitudes recibidas así lo aconseje, dicho importe podrá ser incrementado, previa modificación de los créditos presupuestarios y del Plan Estratégico de Subvenciones, sin que sea necesaria una nueva convocatoria.

*Base 2.ª Personas beneficiarias.*

Tendrán la consideración de beneficiarias de esta línea subvencional las siguientes:

Podrán solicitar la ayuda las personas físicas, en concreto los padres o representantes legales de los niños y niñas de Astigarraga matriculados en el curso 2024-25 en cualquier centro autorizado por la Administración Educativa de la CAPV, siempre según las siguientes condiciones:

— La persona menor de edad para la que se solicita la ayuda deberá estar empadronada en el mismo domicilio de Astigarraga con anterioridad a la fecha de la solicitud.

— La persona solicitante de la subvención debe de ser el padre, madre o tutor de la persona menor de edad para la que se solicita la ayuda.

— La persona menor de edad para la que se solicita la subvención deberá estar matriculada en los niveles de enseñanza obligatoria durante el curso escolar correspondiente al año de la convocatoria en cualquiera de los centros autorizados por la Administración educativa de la CAPV.

— La renta anual de la familia no deberá superar el importe establecido en la convocatoria para cada tramo (ver Base 6.ª).

— En el momento de la solicitud, la persona solicitante deberá disponer de las facturas de los comercios o de los documentos que las sustituyan (factura simplificada) que justifiquen la adquisición de material escolar por valor igual o superior a la cuantía de la ayuda (IVA incluido).

— La persona solicitante o titular de la cuenta deberá ser la misma que el cliente de la factura que se presente. (Las facturas simplificadas se presentarán con un albarán del establecimiento en el que se identifique al cliente).

— Los miembros de la unidad familiar no deberán estar en deuda con el Ayuntamiento con anterioridad a la propuesta de resolución de concesión de la subvención.

EK\CV GAO-I-2024-02635

*3. oinarria. Diruz lagunduko diren jarduerak.*

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak dendetan eskola-materialak erosteagatik sortuak izango dira; beti ere laguntza eskatzen den urteko uztailaren 1etik urriaren 11ra bitartean erosiak badira (BEZa barne).

Honako elementu hauek hartuko dira eskolako materialtzat:

— Idazmahaiko materiala eta suntsikorrak: lapitzak, boligrafoak, ezabagailuak, klipak, txorroskiloak, eskuairak, kartaboiak, garraiagailuak, rotringa, koadernoak, folioak eta informatikako suntsikorrak.

— Material ez suntsikorrak: karpetak, sailkagailuak, artxibagailuak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, eskolako motxilak, orri-bereizgarriak eta testu liburuak.

— Eskolara joateko beharrezkoak diren janztekoak: eskolako uniformea, betaurrekoak edo lentillak (lente zuzentzaileak), heziketa fisikoa egiteko kiroleko arropa eta oinetakoak.

— Teknologietako, Musika eta Heziketa Plastikoetako elementuak.

— Haur Hezkuntzako ikasleak: mantala eta motxila txiki bat.

— Eta, oro har, ikastetxeak zirkular bidez espezifikoki eskatutako edozein material.

Berariaz ez dira diruz lagunduko ondorengo erosketa-gastuak: eskolako kuota eta jantokikoa, arropa eta oinetakoak oro har, eguzkitako betaurrekoak, kirol-diziplina bateko kirol-material espezifikoa, ekipo informatikoak, hardwarea eta softwarea.

*4. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.*

Behar bezala zuritu eta ontzat emandako erosketa kopuruaren % 80ekoa izango da dirulaguntza erosketak Astigarragako dendaren batean eginak badira. Astigarragatik kanpo egindako erosketek, aldiz, gehienez ere, % 60eko dirulaguntza izango dute.

Ez dira diruz lagunduko online saltoki handietako erosketarik.

Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako beste edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baina gainfinantzaketa debekatuta dago.

*5. oinarria. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.*

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak, 2024ko abuztuaren 5etik urriaren 25era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak aurkeztu beharko dira Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera. Modu horretan aurkezten ez direnak, ez dira aintzat hartuko.

*6. oinarria. Eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentuak.*

Dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

— Eskabide normalizatua.

— Nortasun Agiriaren fotokopia.

— Familia-liburua.

— Dendetako fakturen fotokopia edo haiek ordezten dituzten antzeko dokumentuena (faktura sinplifikatuak bezeroa identifikatzen den establezimenduko albaran batekin aurkeztuko dira), laguntzaren kopuru beraren edo gehiagoren balioko (BEZa barne) eskola-materiala erosi duela justifikatuko duena, baldin eta egindako gastua 20 € baino gehiagokoa bada. Kopuru txikiagoa den kasuetan, tiketak ere onartuko dira, baina eskatzaile bakoitzari bakarra onartuko zaio.

*Base 3.ª Actividades que se subvencionan.*

Los gastos subvencionables serán los derivados de la adquisición de material escolar en los comercios, comprados entre el 1 de julio y el 11 de octubre del año en el que se solicita la ayuda, IVA incluido.

Tendrán la consideración de material escolar los siguientes elementos:

— Material de escritorio y fungibles: lápices, bolígrafos, borradores, clips, sacapuntas, escuadras, cartabones, transportadores, rotring, cuadernos, folios y fungibles informáticos.

— Materiales no fungibles: carpetas, clasificadores, archivadores, estuches, calculadoras, compases, mochilas escolares, distintivos de página y libros de texto.

— Vestuario necesario para asistir a clase: uniforme escolar, gafas o lentillas (lentes correctoras), ropa y calzado deportivo para la educación física.

— Elementos de tecnología, música y de formación plástica.

— Alumnos-as de Educación Infantil: delantal y una mochila pequeña.

— Y, en general, cualquier material solicitado específicamente por el centro mediante circular.

Se excluyen específicamente: la cuota escolar y de comedor, ropa y calzado en general, gafas de sol, material deportivo específico de una disciplina deportiva, equipos informáticos, hardware y software.

*Base 4.ª Cuantía de la subvención y gastos subvencionables.*

La subvención será del 80 % de la cuantía de las compras debidamente justificadas y aprobadas si las compras se han realizado en alguna tienda de Astigarraga, mientras que las compras realizadas fuera de la localidad tendrán una subvención máxima del 60 %.

No se subvencionarán las compras realizadas en las grandes plataformas online.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, si bien queda prohibida la sobrefinanciación.

*Base 5.ª Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes de las subvenciones previstas en esta convocatoria podrán presentarse a partir del 5 de agosto hasta el 25 de octubre.

Las solicitudes deberán presentarse de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 17 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones. Las que no se presenten de esa forma no serán tenidas en cuenta.

*Base 6.ª Solicitud y documentación a presentar.*

Documentación a presentar:

— Instancia normalizada.

— Fotocopia del DNI.

— Libro de familia.

— Fotocopia de las facturas de los comercios o documentos similares que las sustituyan (las facturas simplificadas se presentarán con un albarán del establecimiento en el que se identifique al cliente) que justifique la adquisición de material escolar por valor igual o superior al importe de la ayuda (IVA incluido), siempre que el gasto realizado sea superior a 20 €. Se admitirán tickets en los casos en los que la cantidad sea inferior, pero sólo se admitirá uno a cada persona solicitante.

EK\CV GAO-I-2024-02635

— 2023ko ekitaldiari dagokion errenta-aitorpena edo Aldundiaren ziurtagiria (bizikidetza unitateko kide guztiena).

Familiaren urteko errentak ez du gainditu beharko deialdian tarte bakoitzerako ezarritako zenbatekoa:

— Declaracion de la renta correspondiente al ejercicio 2023 o certificado de la Diputación (de todas las personas de la unidad convivencial).

La renta anual de la familia no podrá superar la cuantía establecida en la convocatoria para cada tramo:

| *Bizikidetza unitateko kideak* | *Hobariak* | | |
|---|---|---|---|
| 1 | < 1,45 PGS (SMI) | 1,46 PGStik 1,65 PGSra | 1,66 PGStik 1,98 PGSra |
| 2 | < 1,90 PGS (SMI) | 1,91 PGStik 2,16 PGSra | 2,17 PGStik 2,59 PGSra |
| 3 | < 2,07 PGS (SMI) | 2,08 PGStik 2,37 PGSra | 2,38 PGStik 2,84 PGSra |
| 4 | < 2,23 PGS (SMI) | 2,24 PGStik 2,55 PGSra | 2,56 PGStik 3,05 PGSra |

| *N.º de personas unidad convivencial* | *Bonificaciones* | | |
|---|---|---|---|
| 1 | < 1,45 PGS (SMI) | De 1,46 a 1,65 del PGS | De 1,66 a 1,98 del PGS |
| 2 | < 1,90 PGS (SMI) | De 1,91 a 2,16 del PGS | De 2,17 a 2,59 del PGS |
| 3 | < 2,07 PGS (SMI) | De 2,08 a 2,37 del PGS | De 2,38 a 2,84 del PGS |
| 4 | < 2,23 PGS (SMI) | De 2,24 a 2,55 del PGS | De 2,56 a 3,05 del PGS |

— Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, xede bererako eskatu edo jasotako beste dirulaguntzei buruzkoa.

— Dirulaguntzen ordenantzaren 15. artikuluan eskatutako gainerakoak.

Udalak, eskatzaileak horretarako baimena emanez gero, Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez honakoak egiaztatuko ditu:

— Gipuzkoako Foru Aldundia - PFEZren kontsulta.

— Eusko Jaurlaritza - Familia ugariko tituluen kontsulta.

— Foru Ogasuna - Zerga-betebeharrak ordainduta izatea.

— Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala - Gizarte Prestazio Publikoen kontsulta.

— Lanbide - Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean izatea.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Lan-bizitzaren kontsulta.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - Datan Gizarte Segurantzan alta emanda egotea.

Eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen horiek zuzenean egiaztatzeko, dagokion ziurtagiri eta agiriak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza eskaerarekin batera.

Izaera pertsonaleko datuak babestu eta erabiliko dira arlo horretako araudiak eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 15.4 artikuluari jarraiki.

*7. oinarria. Akats zuzentzea.*

Eskaerak deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesatuari gehienez 10 laneguneko epe luzaezin batean zuzentzeko eskatuko zaio, eta gainera, egiten ez badu, bere eskaerari uko egin diola iritziko zaiola jakinaraziko zaio, aurrez Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzaren 16. artikuluan aurreikusten dituen baldintzen araberako erabakia hartuta.

— Declaración responsable sobre solicitudes realizadas o percibidas para el mismo objetivo de esta convocatoria.

— Los demás documentos exigidos exigidos en el artículo 15 de la Ordenanza de Subvenciones.

El Ayuntamiento, previa autorización del solicitante, comprobará a través del nodo de interoperabilidad Nisae:

— Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de IRPF.

— Gobierno Vasco - Consulta de Títulos de Familia Numerosa.

— Hacienda Foral - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.

— Instituto Nacional de la Seguridad Social - Consulta de Prestaciones Sociales Públicas.

— Lanbide - Consulta de Renta de Garantía de Ingresos.

— Tesorería General de la Seguridad Social - Estar al corriente en las obligaciones de pago a la Seguridad Social.

— Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de vida laboral.

— Tesorería General de la Seguridad Social - Estar dado de alta en fecha en la Seguridad Social.

En el caso de que la solicitante no autorice al Ayuntamiento la comprobación directa de los datos, deberá aportar junto con la solicitud de subvención los certificados y documentos correspondientes.

La protección y tratamiento de los datos de carácter personal se realizará conforme a la normativa vigente en la materia y al artículo 15.4 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

*Base 7.ª Subsanación de defectos.*

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en las bases de convocatoria, se requerirá a la interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días hábiles, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y el artículo 16 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

EK\CV GAO-I-2024-02635

*8. oinarria. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak.*

1. Euskara eta Hezkuntza saila arduratuko da eskaera izapidetzeaz, egingo dena Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 19 artikuluari jarriki.

2. Deialdi honetako 3.000 eurotik gorako dirulaguntzak tokiko gobernu batzarrak ebatziko ditu, eta gainerako ebazpenak alkatearen dekretuz onartuko dira.

3. Laguntza-eskabideak sarrera-ordenaren arabera izapidetuko dira, sarrera data eta orduaren lehentasun-hurrenkera jarraituz, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren eta 2024 ekitaldiko udal aurrekontuaren araberako kreditu erabilgarria amaitu arte.

4. Hamabost egun balioduneko epean –dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita–, berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez bazaio, dirulaguntza onartu egin dela ulertuko da, bai ebazpenean eta deialdiaren oinarrietan adierazitako baldintza ekonomikoei dagokienez, bai gainerako betekizun edo alderdi guztiei dagokienez.

*9. oinarria. Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunak betebehar hauek ditu:

— Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 21. artikuluan adierazitakoak eta deialdi honetako 2. eta 6. oinarrietan adierazitakoak.

*10. oinarria. Ordainketa.*

Laguntzaren zenbatekoa ordainduko da Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 22. artikuluaren arabera.

Ordenantzan aurreikusitako aurrerakinak onartzeko, aurrez berariazko eskaera egin beharko da, dirulaguntza eskaerarekin batera, edo aurrerago.

*11. oinarria. Justifikazioa.*

Laguntza justifikatu beharko da Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 23. artikuluari jarraiki.

Horrez gain, onuradunak 2. oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituela justifikatu beharko du (6. oinarrian adierazitako dokumentuak aurkeztuta).

*12. oinarria. Ez betetzea, dirua itzultzea eta zehapen espedientea.*

Jasotako kantitateak itzultzea eta dagokien atzerapen interesa eskatzea bidezkoa izango da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan araututako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren edota oinarri hauetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

Diru itzulketa egingo da udal ordenantzaren 25. eta 26. artikuluen arabera.

Halaber, ez betetzea, Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 27. artikuluaren arabera, arau-haustetzat jo daitekeenean, udalak dagokion zehapen espedientea izapidetuko du, ordenantzaren 28 eta hurrengo artikuluei jarraiki.

*13. oinarria. Araubide osagarria eta interpretazioa.*

Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan honako araubidea aplikatuko da: Dirulaguntzen Udal Ordenantza, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen erregelamendua.

Alkatetzak oinarri hauek modu egokian aplikatzeko eta interpretatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko ahalmena du. Eta horrek hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

*Base 9.ª Órganos competentes para la tramitación y resolución del procedimiento.*

1. El Departamento de Euskera y Educación será el encargado de tramitar la solicitud, que se realizará de acuerdo con el artículo 19 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

2. Las subvenciones cuya cuantía supere los 3.000 euros se resolverán por la Junta de Gobierno Local y el resto se resolverá por Decreto del Alcalde.

3. Las solicitudes se tramitarán por orden de entrada, fecha de entrada y orden de prelación horaria, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos establecidos en las presentes bases y hasta el agotamiento del crédito disponible según el presupuesto municipal del ejercicio 2024.

4. Si en el plazo de quince días hábiles –a contar desde la notificación de la resolución de la concesión de la subvención– no se renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, tanto en los términos económicos, como en todos los demás requisitos o aspectos, señalados en la resolución y en las propias bases de la convocatoria.

*Base 9.ª Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Son obligaciones de la persona beneficiaria:

— Los señalados en el artículo 21 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones y en las bases 2.ª y 6.ª de la presente convocatoria.

*Base 10.ª Pago.*

El importe de la ayuda se abonará de acuerdo con el artículo 22 de la Ordenanza Municipal de la subvención.

La aprobación de anticipos previstos en la Ordenanza requerirá la previa solicitud expresa, junto con la solicitud de subvención o posteriormente.

*Base 11.ª Justificación.*

La subvención se deberá de justificar de acuerdo al art. 23 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

Asimismo, la persona beneficiaria deberá justificar el cumplimiento de los requisitos señalados en la Base 2.ª (presentando la documentación señalada en la Base 6.ª).

*Base 12.ª Incumplimiento, reintegro y expediente sancionador.*

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del correspondiente interés de demora en los supuestos regulados en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones, así como por el incumplimiento de las condiciones establecidas en la Ordenanza Municipal de Subvenciones o en estas bases.

El reintegro se realizará conforme a los artículos 25 y 26 de la Ordenanza municipal.

Asimismo, cuando el incumplimiento pueda ser constitutivo de infracción conforme al artículo 27 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, el Ayuntamiento instruirá el correspondiente expediente sancionador, que se tramitará de acuerdo con los artículos 28 y siguientes de la Ordenanza.

*Base 13.ª Normativa complementaria e interpretación.*

En todo lo no previsto o recogido en las presentes bases, las subvenciones se regirán por la Ordenanza Muncicipal de Subvenciones, por la Ley 38/2003 General de Subvenciones y por el reglamento que lo desarrolla.

La alcaldía queda facultada para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de estas bases. Sus acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y serán ejecutivos desde su adopción.

EK\CV GAO-I-2024-02635

*14. oinarria. Laguntzen izaera.*

Laguntza hauek izaera administratiboa dute, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie udalak kudeatzen dituen dirulaguntzekiko jurisdikzio-eskumena.

Astigarraga, 2024ko apirilaren 9a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (2635)

*Base 14.ª Naturaleza de la subvención.*

Estas ayudas tienen naturaleza administrativa, correspondiendo a los Tribunales Administrativos la competencia jurisdiccional sobre las subvenciones gestionadas por el Ayuntamiento.

Astigarraga, a 9 de abril de 2024.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (2635)

EK\CV GAO-I-2024-02635